Bizitza,

luzaroan ez dizut horrela deitu.

Biziki maite ninduen emakumearen atea jotzen dut. Biziki maite zintuen emakumearen eskuek bilatzen zaituzte. Hilabete horietan borobildu zitzaigun ekaitza atzerantz bete nahi dut zurekin. Konturatu gabe, gure itsasontziak zeharkatzen zuen ozeanoa bitan zatitu eta bakoitzak ontzia erdiarekin geratu zen. Erdi ozeano. Erdi itota. Ur gainean utzitako pausoetan batak besteari luzatutako samurtasunik gabeko begiradek irentsi egin gintuztela ikusten dut. Nola begiratu eta nola ikutu ahaztu genuen. Gure etxebizitza gure kartzela bihurtu ondoren isiltasuna eta isilkeria bere burdin-hesi bezala sartu ziren gure begietan eta eztarrietan. Ahotsak mingarri izatera bultzatu arte. Zu, ni eta biok osatzen genuen hirukiaren ertzek nekearen geometria ustelean galdu ziren. Maitasunean pentsatu gabe maitatzeagatik, maitasuna zer zen ahaztu genuen.

Gurea utzi ondoren bizi nintzen etxeko izpiluak apurtu nituen eta zolu gaineko kristal zati bakoitzean isladatu nintzen. Zapaldu nituen. Besarkatu nituen. Haginka egin nien nire gorputza ezagutu arte. Eta biluzik ikusi nuen. Gizaki baino ez. Eta maite zintudala ikusi nuen. Ostera naiz ni, gehiago eta hobeto maitatzeko. Iraganaren betiereko ikaslea. Nire aurpegiko harriak kendu eta begiak jarri ditut dagozkien lekuetan. Iraganean, ez bidaiek, ez balnearioek ezta terapiek ere ez zuten ezertarako balio. Erabateko iluntasunean jarraitu genuen eta iluntasun berberan suertatu ginen hildako. Kanpoko argia baino ez genuen aldatu eta. Orain, begiak aldatu ostean, zure arimaren argira deitzen dut, ikus nezan. Ikus genezan. Ikusten dudan argia bi hitzetan laburtzen baita: maite zaitut.

Gure inguruko mundua asmatzeari uko egin genion. Elkarri mundua asmatzeari uko egin genion. Dena asmatu ondoren. Denagatik borrokatu ondoren. Gutxituak eta mesprezatuak izan ginen. Baita irainduak ere. Emakumeen artean azkenengoak. Txikienak. Ezer. Baina eutsi genion. Gure sexualitatea eta gure askatasuna ziren gure abangoardia. Gure duintasuna eta gure nortasuna ziren gure erretagoardia. Gure maitasuna zen gure indarra. Agian, konfidantzak itsutu gintuen. Agian gizaki izateagatik kale egin genuen. Kanpoan lortutako garaipenak eta egi bilakatutako ametsak ez genituen etxean bideratu, ezta sartu ere. Lan esparruan berdintasuna aldarrikatu eta elkarri sorbalda baino ez eskainiz. Gizonkeria estrukturala gizartearen oinarrietan borrokatzen eta bestearen egunerokotasunaren zapatan laban zorroztuak uzten. Hitza eta arrazoia behin eta berriz landu genituen bidezko bulkada lortzeko, gizartearen ulermena, batasuna eta aldameneko ekimena lortzeko. Eta lortu genuen, XXI. mendeko bigarren hamarkada ahaztezin horretan. Orduan hasi eta hazi zen gure uraren zatiketa. Oxigenorik gabe eraiki daiteken su bakarrean erre ginen. Egiz betetako ideiak laburtu eta azaldu, mezuak zabaldu egia handitzeko. Gizartea aldatu genuen. Baina distantzien hizkuntza ulertzen ez zuen espazio bihurtu ginen. Lorategi. Telebista. Aldizkari. Karta. Liburu. Batzar. Tapiz. Kazola. Enpatiarik gabe. Nagikeriaz. Adiskidetasunik gabe. Gaitzondoz. Zentzumenik gabe. Arnasten genuen airea bitan zatituz. Indarge. Gure gorputzak lur egin ziren. Nork bere erraietan amankomuneko goroldioa aurkitu arte ez ginen konturatu.

Orain, ile urdindua nire bururaino bueltatu da abestitik. Besarkaden berotasuna nire eskuetara bueltatu dira. Nire odolak egutegiaren horri berriak berriro eramaten ditu nire begien ezinezko udaberrira. Lurretik zuhaitzetara igoten entzuten ditut. Beraietan bizitza datorrela badakit. Beraietan zu zatozela ikusten dut. Idaztear dauden borroken izenburuaren lehenengo hitza zure izena da. Nire leihoek zure argia ostera ikusi dute eta zure paisaia behar dute existitzeko. Hori baitzen zure magia. Hau baita zure magia.

Antzinako batailak irabazi arren guda galdu genuen. Egun, ordea, guda amaitu ez dela biziki uste dut. Bizitza dagoen bitartean guda hau amaitzen ez delako. Maitasuna dagoen bitartean bizitzaren guda amaitzen ez delako. Maitasuna dagoenean gudarik ez dagoelako. Eta, orain, nire guda zu maitatzea da. Nire bizitza zu maitatzea da. Nire maitasuna zu zara. Bizitza zara. Nire bizitza zara. Maitea. Zu, ni eta biok.

Aitor Monje Garrido